

AHAZTUTAKO ABESTIAK

Montserrrat Sanchez Lopez

Jose Antonio Fernandez Ramirez

MUSIKA ARLOA

LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

IRALE R-300 2015

GASTEIZ

AURKIBIDEA

SARRERA.....3

AHAZTUTAKO ABESTIAK

1. ***DAMA EDERRA***.....4
2. ***HIRU ERREGE MAGOAK***.....5
3. ***ANDREGAIA***.....6
4. ***BEGI URDIN***.....7
5. ***BART NON OTE NINTZEN NI?***.....8
6. ***IRAIRON***.....9
7. ***TXIRRINTXANKETAN***.....10
8. ***IKUSI NUENEAN***.....11
9. ***DULUN,DULUN JOARE***.....12
10. ***JOAN NINTZEN MERKATURA***.....13

ERANSKINA.....14

BIBLIOGRAFIA.....20

SARRERA

Kantua ahotsarekin edota hitzarekin musika egitea eta sentimendu bizi bat adieraztea da. Herri-kantak herri honen biziera eta senaren ispilurik onena dira. Eta euskaldunok, geure zorionerako, ehunka, milaka herri-kanta ditugu. Guk lan xume hau egiteko Azkueren kantutegia hartu dugu. Bilduma honetako abestiak aukeratzean, bi irizpide izan ditugu kontuan: ikasgelan erabiltzeko errazak izatea eta oso ezagunak ez izatea.

Abestiak euskara batuan jarri dira, errimak eta melodiak ahal izan den neurrian errespetatuz. Hala ere, aldaketa batzuk egin ditugu partiturak errazte aldera. Partiturak txirulaz jo ahal izateko moldatu ditugu.

Helburuak:

1. Euskal kultura-ondarearen abestien bilduma berri bat sortzea.
2. Ikasgelan zein etxean kantatzea grabaturiko akonpainamenduak erabilita.
3. Partitura guztiak moldatzea txirularekin jo daitezen.

Bilduma hau lehen hezkuntzan zein bigarren hezkuntzako lehenengo zikloan, erabil daiteke.

Lana hiru ataletan banatu dugu:

1. Ikasleen fitxak: partiturak, abestien hitzak eta oharrak.

2. Blog-a [http://ahaztutakoabestiak.blogspot.com.es]: bertan, abestien bideoak (bakoitza bere musika eta partiturarekin) eta material guztia deskargatzeko aukera; ikasgelan edota etxean erabiltzeko.

3. Irakasleentzako eranskina: jatorrizko abestien hitzekin eta egin diren aldaketa guztien azalpenekin.

DAMA EDERRA



I.

Dama ederra: gorarik[1] zaude etxean,
zure senarra apalik[2] dago Frantzian.
Hura handik jin arteko aldian
ogipeko har nazazu etxean.

II.

Ene senarra apalik dela Frantzian?
(E)ta hura handik jin daitekeen artean
ezkutari[3] ni aski naiz etxean:
auzokoak[4] hurbil utzi dizkit joatean.

1. zutik
2. behera
3. babesle
4. bizilagunak

AZKUE, R.M.: *Cancionero popular vasco*, Boileau, Bartzelona, 1922, 79. or.

http://ahaztutakoabestiak.blogspot.com.es/2015/03/dama-ederra.html

HIRU ERREGE MAGOAK



Hiru Errege Magoak
hain bide luzean,
zeruan musika,
munduan tronpeta,
andre Josepa tronpeta jotzen,
kristo(re)n erreberentzia,
jarri belauniko,
adora Jesukristo.
Gure zelaian nor dabil?
Azaburuak loratzen.
Aitatxu, Amatxu,
hurra hurra pitxitxu.



AZKUE, R.M.: *Cancionero popular vasco*, Boileau, Bartzelona, 1922, 631. or.

http://ahaztutakoabestiak.blogspot.com.es/2015/03/hiru-errege-magoak.html

ANDREGAIA



Andregaia zara garbia,
buruan duzu harrokeria:
hiru mutil gaztek
zu nahiz emazte
elkarren artean
hizkaldi[1] dute.
Izan bezate,
nahi badute,
ene ardurarik [2]
haiek ez dute.
Ez dut nahi ezkondu
ez hizka[3] horretan sartu,
komentu batera
serora[4] noazu.



1. eztabaida (aldia)
2. kezka
3. eztabaida
4. moja

AZKUE, R.M.: *Cancionero popular vasco*, Boileau, Bartzelona, 1922, 624. or.

http://ahaztutakoabestiak.blogspot.com.es/2015/03/andregaia.html

BEGI URDIN



I.
Begi-urdin, ile hori, zoragarria;
gorputz ttipi, gerri polit, paregabea;
elurra bezain zuri da zure larrua,
arrosa bezain gorri begi bitartea[1]:
zoraturik daukazu mundu guztia.
Ez ote zait zilegi zuri esatea?
II.
Jinen naiz, bai ala ez, zu ikustera?
Jin ahal bazaitezke hona, ene maitea.
Zurekin nahi nuke eraman bizia,
nire izerdiz egin zuretzat ogia.
-Zatoz fite[2], lehia zaitez, zu zaitut nire;
inolaz ere ni ez nengoke zu ikusi gabe.



1. aurpegia
2. arin, azkar

AZKUE, R.M.: *Cancionero popular vasco*, Boileau, Bartzelona, 1922, 74. or.

http://ahaztutakoabestiak.blogspot.com.es/2015/03/begi-urdin.html

BART NON OTE NINTZEN NI?



Bart non ote nintzen ni?
Joan nintzen Arbosera
danbor baten erostera,
danbor horrek ton-ton-ton.
Bart non ote nintzen ni?
Joan nintzen Arbosera
txilibitu[1] baten erostera,
txilibitu horrek frifrifri,
danbor horrek tontonton.
Bart non ote nintzen ni?
5. eltzagor[2] horrek bunbunbun;
4. atabal horrek tarrapatapa;
3. gitarra horrek gringringrin;
2. txilibitu horrek frifrifri,
1. danbor horrek tontonton.
Bart non ote nintzen ni?



1. txirula
2. *zambomba*

AZKUE, R.M.: *Cancionero popular vasco*, Boileau, Bartzelona, 1922, 615. or.

http://ahaztutakoabestiak.blogspot.com.es/2015/03/joan-nintzen-merkatura.html

IRAIRON



Irairon furrun diran donean
irairon furrun diran don.
Irairon furrun diran donean
irairon furrun diran don.
Hor goiti hortan zuhaitz bat
deitzen zaiona lizarra[(1)].
Horra Gloria lagun arteko
papar guztia izarra.

Irairon furrun diran donean
irairon furrun diran don.
Irairon furrun diran donean
irairon furrun diran don.
Hor goiti hortan zuhaitz bat
deitzen zaiona gaztaina.
Horra Fermina lagun arteko
hamalau libra ezpaina.



1. *fresno*

AZKUE, R.M.: *Cancionero popular vasco*, Boileau, Bartzelona, 1922, 823. or.

http://ahaztutakoabestiak.blogspot.com.es/2015/03/irairon.html

TXIRRINTXANKETAN



Txirrintxanketan
akerra dantzan,
astoa bibolina jotzen,
azeria suari puzka,
erbia irin eraltzen[1].

1. eralki; galbahetik pasatu

AZKUE, R.M.: *Cancionero popular vasco*, Boileau, Bartzelona, 1922, 642. or.
http://ahaztutakoabestiak.blogspot.com.es/2015/03/txirrintxaketan.html

IKUSI NUENEAN



I. Ikusi nuenean nik zure begia (bis),
iruditu zitzaidan, maitea, anpolai [(1)]gorria (bis).

II. Ikusi nuenean nik zure kokotsa (bis),
iruditu zitzaidan, maitea, gaztaina-morkotsa[(2)] (bis).

III. Ikusi nuenean nik zure sudurra (bis),
iruditu zitzaidan, maitea, lukainka[(3)]-muturra (bis).

IV. Ikusi nuenean nik zure ahoa (bis),
iruditu zitzaidan, maitea, karobi-zuloa[(4)] (bis).

V. Ikusi nuenean zure belarria (bis),
iruditu zitzaidan, maitea, azaren orria (bis).



1. *guinda*
2. gaztain-oskolaren arantza
3. *longaniza*
4. *calera*

AZKUE, R.M.: *Cancionero popular vasco*, Boileau, Bartzelona, 1922, 697. or.

http://ahaztutakoabestiak.blogspot.com.es/2015/03/ikusi-nuenean.html

DULUN, DULUN JOARE



Dulun dulun joare[1] behiak heldu dira,
Donibaneko plazan hiru atso dantzan,
batek besteari bere graziari
latxikon latxikon giri-giri on.



1. zintzarria, arrana

AZKUE, R.M.: *Cancionero popular vasco*, Boileau, Bartzelona, 1922, 62. or.

http://ahaztutakoabestiak.blogspot.com.es/2015/03/dulundulun.html

JOAN NINTZEN MERKATURA



Joan nintzen merkatura
erosi nuen txerritxoa,
txerritxoak kurrin kurrin kurrin,
ni sakelean dirurik gabe
eta deusen jabe.
Joan nintzen merkatura,
erosi nuen atabala[1],
atabal horrek ttun ttun ttun,
txerritxoak kurrin kurrin kurrin,
ni sakelean dirurik gabe
eta deusen jabe.
Joan nintzen merkatura,
erosi nuen txirula,
txirulak txiruliruliru,
atabal horrek ttun ttun ttun,
txerritxoak kurrin kurrin kurrin,
ni sakelean dirurik gabe
eta deusen jabe.



1. danborra

AZKUE, R.M.: *Cancionero popular vasco*, Boileau, Bartzelona,1922, 648. or.

http://ahaztutakoabestiak.blogspot.com.es/2015/03/joan-nintzen-merkatura.html

ERANSKINA

Atal honetan agertuko dira jatorrizko abestiak eta egin ditugun aldaketak, bai abestien azpiegituran, bai tonuan, eta abar.

1. *DAMA EDERRA*

Jatorrizko letra	Tonalitate-aldaketa	Oharrak
I. "Dama ederra: gorarik zaude etxean, zure senarra aphalik dago Frantzian. Hura hantik yin-artinoko aldian ogipeko har nezazu etxean." II. "¿Ene senarra aphalik deya Frantzian? Ta hura hantik yina daiteken-artean beskotari nihaur aski niz etxean: hauzoak hurbil utzi derauzkit joaitean."	Ez. Egokia da txirularentzat.	10. konpasean, konpas-aldaketa bat egin dugu.
Bigarren letrarako proposatzen digun aldaketa: 		

2. *HIRU ERREGE MAGOAK*

Jatorrizko letra	Tonalitate-aldaketa	Oharrak
"Iru Errege Magoak ain bide luzean, zeruan musikea, munduan tronpetea, andra kosepa tronpeta yoten, kriston erreberentzia, yarri belauniko, adora Jesukristo. ¿Gure zelaian nor dabil? Azaburuak loratzen. Aitatxu, Amatxu, urra urra pitxitxu."	Fa maiorrean jarri da errazago jotzeko.	

3. *ANDREGAIA*

Jatorrizko letra	Tonalitate-aldaketa	Oharrak
“Anderegeya zira garbia, buruan duzu arrokeria: hirur mutil gaztek zu naiz emazte elgarren artean hizkaldi dute. Izan bezate, nahi badute, ene ardurarik heyek eztute. Eztut nai ezkondu ez hizka orrtan sartu, komentu batera serora noazu.”	Ez	

4. *BEGI URDIN*

Jatorrizko letra	Tonalitate-aldaketa	Oharrak
“Begi-urdin, bilo-ori, zoragarria; gorputzttipi, gerripolit, pare gabea; elhurra bezain xuri da zure larrua, arrosa bezain gorri begi bitarrtea: zoraturik deraukazu mundu guzia ¿Ezotezait zilegi zuri erraitea? ¿Jinen niza, bai ala ez, zure ikustera? -Bai yiten alzira hunat, ene maitea. -zurekin nahi nuke ereman bizia, nere izerdiz egin zuretzat ogia. -Zato fite, leya zite, zu zaitut nere; nihola ere ni ez nauke zu ikusi gabe.”	Ez	18. konpasean nota bat kendu da, silaba bat gutxiago geneukalako.
Bigarren letrarako proposatzen digun aldaketa:  		

5. *BART NON OTE NINTZEN NI?*

Jatorrizko letra	Tonalitate-aldaketa	Oharrak
“Bart non ote nintzen ni Gan nintzen Arbosera danbore baten erostera, danbore orrek ton-ton-ton. Bart non ote nintzen ni. Gan nintzen Arbosera xulubita baten erostera, xulubita orrek fri-fri-fri, danbore orrek tton-tton-tton. ¿Bart non ote nintzen ni? ¿Bart non ote nintzen ni? Gan nintzen Arbosera antxume baten erostera: 10. antxume ori beaka; 9. oilo ori karaka; 8. neskatxa orrek ajaja; 7. atso zar orrek marmarmar; 6. zorotzar orrek farfarfar; 5. zanbonba orrek bunbunbun; 4. atabala orrek tarrapatapa; 3. kitarra orrek gringringrin; 2. xulubita orrek frifrifri; 1. danbore orrek ttonttontton. ¿Bart non ote nintzen ni?”	Ez	Bost errepikapen utzi ditugu, musika-tresnekin zer ikusia dutenak. Partitura errepikapen-zeinuen bidez moldatu da, luzeegia ez izateko.

6. *IRAIRON*

Jatorrizko letra	Tonalitate-aldaketa	Oharrak
“Irairon furrun diran donean irairon furrun diran don. Irairon furrun diran donean irairon furrun diran don. Or goiti ortan zugatz bat deitzen zaiona lizarra. Orra gloria lagun arteko papar guzia izarra. Irairon furrun diran donean irairon furrun diran don. Irairon furrun diran donean irairon furrun diran don. Orgoiti ortan zugatz bat deitzen zaiona gaztaina. Orra Fermina lagun arteko hamalau libra ezpaina.”	Ez	Partitura osoa 6/8 konpasean jarri da errazteko asmoz.

7. *TXIRRINTXANKETAN*

Jatorrizko letra	Tonalitate-aldaketa	Oharrak
“Txirrintxanketan akerra dantzan, astoa binbolina yoten, azegaria suari puzka, erbia urun eralten.”	Mi maiorretik sol maiorrera.	5. konpasean nota bat kendu da, silaba bat gutxiago geneukalako.

8. *IKUSI NUENEAN*

Jatorrizko letra	Tonalitate-aldaketa	Oharrak
"I. Ikusi nuenean nik zure begia (bis), iruditu zitzaidan, maitea, anpolai gorria (bis). II.Ikusi nuenean nik zure okotza (bis), iruditu zitzaidan, maitea, gaztaña-lokotza (bis). III. Ikusi nuenean nik zure sudurra (bis), iruditu zitzaidan, maitea, lukainka-muturra(bis). IV. Ikusi nuenean nik zure agoa (bis), iruditu zitzaidan, maitea, karabi-zuloa (bis). V. Ikusi nuenean zure belarria (bis), iruditu zitzaidan, maitea, azaren orria (bis)."	Si bemol maiorretik fa maiorrera.	Partitura moldatu da errepikapen-zeinuen bidez, luzeegia ez izateko.

9. *DULUN,DULUN JOARE*

Jatorrizko letra	Tonalitate-aldaketa	Oharrak
"Dulun dulun yoale beiak eldu dire, doniango plazan iru atso dantzan, batek bertzeari bere graziari latxikon latxikon giri giri on."	Fa maiorretik sol maiorrera eraman dugu fa sostenitua ekiditeko.	5. konpasean nota gehiago gehitu dugu silaba guztiak sartzeko.

10. *JOAN NINTZEN MERKATURA*

Jatorrizko letra	Tonalitate-aldaketa	Oharrak
"Yoan nintzan merkatura erosi nuen txerriñoa, txerriñoa kurris kurris kurris, ni sakelean dirurik gabe eta deusen yabe. Yoan nintzan merkatura erosi nuen arrazkoa, arrazko orrek ttun ttun ttun, txerriñoak kurris kurris kurris, ni sakelean dirudik gabe eta deusen yabe. Yoan nintzan merkatura erosi nuen txulubitatxua, txulubitak txiruliruliru, arrazko orrek ttun ttun ttun, txerriñoak kurris kurris kurris, ni sakelean dirurik gabe eta deusen yabe."	Re maiorretik do maiorrera.	Konpas-aldaketak saihestu ditugu eta 4/4 baino ez dugu erabili. Partitura moldatu dugu errepikapen-zeinuen bidez, luzeegia ez izateko.

BIBLIOGRAFIA

AZKUE, R.M.: *Cancionero popular vasco*, Boileau, Bartzelona, 1922.

ANSORENA, Jose Inazio: *Euskal kantak*, Erein, Donostia, 1993.

ZENBAITEN ARTEAN: *Kantua eskolan*, Gasteizko Udala, Gasteiz, 2000.

http://www.euskomedia.org/kantutegia